

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Cajurra

DARATULUAREN BEHAR HANDIRIK GABE ERE, zuhaitzen adina jakin, jakin daiteke. Brasilen, Pirangi do Norten, hondartza "liluragarriaren" parean, inon ezagutzen den cajueiro arbola handiena bizi da, *Anacardium occidentale*. 1888an aldatu zuen Luiz Inácio de Oliveira arrantzaleak. 500 bat metroko perimetroarekin 8.000 m² inguru itzalpetzen du, bi golde pasa; ederra! Brasilgo errekorren liburuan jasoa da eta 1981az geroztik baita Guinnessen ere. Bere aparteko tamaina hau aldrebeskeria genetiko bati zor dio: adarrak hazi, luzatu eta eutsi ezinezko zama hartzen dute, makurtu eta lurra ukitzen dutenean itsatsi eta adarren puntak zuhaitz berri bat bailitzan arbolari segida ematen dio. Kale artean harrapatua dago eta ezin du gehiago hazi, bestela batek daki noraino helduko

litzatekeen... Bere zale amorratuenean inguruetakotxeak eraisten hasi beharra dagoela diote. Uzta aldioro 80.000 inguru caju ematen dituela jotzen da, hiru tona, gutxi edo gehiago. Bere loreen zaleak dira erle eta beste, eta denak ezin azaldu ahalako erabileren artean bere izerdiarekin egiten den tinta aipagarri.

André Thèvet fraile abenturazale frantziarraren *Les singularitez de la France Antarctique autrement nommée Amérique*, 1557ko liburuan, bere errege kuttunak Brasilen eraiki nahi izan zuen kolonian topatu zituen landare eta abarren artean cajurra deskribatzen du. Gerora portugaldarrek mundu osora zabaldu zuten eta kolonietako salerosgai garrantzitsua izan zen.

Cajua, espainolez *anacardo*, frantsesez *anacarde* eta *noix de cajou* fruitu lehor gisara jaten da. Jaioterriko

caju-tik abiatuta guk caju-hurra, cajurra deitu beharko ote diogu? Kolonietako salerosketetan, itsasotik barrena, makina bat euskaldunek erabiliko zuen eskuartearen hur hau; ez zaigu, baina, inongo izenen berririk iritsi, neuri behinik behin. Pirangiko cajueiro izugarri hau Luiz Inaziok aldatu zuen urte berean Narbarteko erretore Jose Maria de Lakoizketak argitaratu eman zuen *Diccionario de los nombres euskaros de las plantas en correspondencia con los vulgares, castellanos y franceses y científicos latinos* ederean ere anakardo gisara jaso zuen.



Anacardium occidentale-aren fruitua.

11

Nafarroan soro eta baratzetara emaniko lurren %11 ekologikoan lantzen da, 30.800 hektarea. Kopuru izugarria. Bertan ekologiko zigilua daramaten bostehundik gora jaki sortzen dira. Jakien eraldaketa egiten duten enpresa nafarren ia erdiak, 76k, gai ekologikoak erabiltzen dituzte. Gai hauek ia 60 baserritarrek eta 60 abeltzainek sortzen dituzte.

